

Eurohiria, Europa Batasunean emandako espazio sozialaren irudikapena

(The Eurocity, the representation of social space in the European Union)

Anduaga Matud, Jaime

Donostia Kalea, 38 - 3. 20280 Hondarribia. janduaga@euskalnet.net

Globalizazio eta globalismoaren zeruertz zabaletik datozkigun joera berrien artean metropoli baten sorkuntzaren inguruan metatzen dira nahiak, proposamenak, ametsak eta beldurrak. Nortasun ezaugarriak lausotzen diren garaietan historiaren interpretapena, oroimen kolektiboaren oinarri gisa, nortasun kolektiboaren dimentsioztat hartzea zilegi dirudi baina zer da horren atzean herri horren elitea denean baliabide hori erabiltzen duena?

Giltza-Hitzak: Eurohiria. Komunitate a-urbanoak. Gentrifikazioa. Merkatu bakarra. Irudikapena.

Entre las nuevas tendencias provenientes del amplio horizonte de la globalización y el globalismo, en torno a la creación de una metrópoli se acumulan propuestas, sueños y miedos. En estos tiempos en que las señas de identidad se van difuminando, tomar la interpretación de la historia como fundamento de la memoria colectiva, como dimensión de la personalidad colectiva parece lícito, pero qué hay detrás de ello cuando es la élite de ese pueblo quien utiliza tal recurso?

Palabras Clave: Eurociudad. Comunidades a-urbanas. Gentrificación. Mercado único. Representación.

Parmi les nouvelles tendances provenant du large horizon des globalisations et du globalisme, les propositions, les rêves et les craintes s'accumulent autour de la création d'une métropole. En ce moment où les signes d'identité diminuent, prendre l'interprétation de l'histoire comme base de la mémoire collective, comme dimension de la personnalité collective semble licite, mais qu'y a-t-il derrière tout cela lorsque c'est l'élite de ces villages qui utilise de tels ressources?

Mots Clés: Eurocité. Communautés a-urbaines. Gentrification. Marché unique. Représentation.

SARRERA

Bigarren munduko gerraren ostean Europako estatuen agintari politikoak konturatu ziren hobe zela merkatu iraunkorren eskusartze partekatuz jarduteaz merkatu-esparru gatazkatsuen nagusia izatea baino, eurentzat behintzat merkeagoa eta egonkorragoa zela, horrela berrogeita hamar urte beranduxeago *Europa Batasuna* gisa ezagutzen den erakunde politiko-ekonomikora (soziala denik oraingo ez dut onartuko) iritsarazi gaituzte.

Merkatuan partekatze hori zuzenduta legoke, gainera, estatu bakoitzak izango lukeen berezitasunaren arabera eta egoera horrek sustatu zuen Europako estatu guztien merkatu-espezializazioa.

Horrenbestez, eta hori izanik artikulua gaia-
ren testuingurua nire kezka sortzen da ikustean halako eredu ekonomikoa laguntzen duen eta derri-
gorrez lagundu behar duten gizarte harremanak eta espazioari buruzko kontzeptualizazio berriak, gizarte-
te-ekarpen berriztat joak, ea nola txertatzen diren finkatuta dauden kolektibitateetan, hauek urbanoak edo “a-urbanoak” izanik, eta horren kostua.

Horretarako, premisa gisa nahi bada, zenbait abiapuntu hartu behar dugu aintzat: Bat, oraindik ere posmodernismo garaian gaudela eta honen eraginpean posible dela aurkitzea, historiaren aitzakian ainguratuta, espazio “a-urbanoaren” ezaugarriak dituzten kolektibo urbanoak; hau da, gizarte urbanoaren definizioari¹ ez dagokion kolektibo kulturala. Posmodernismo garaiak balio du halaber, kolektibitate eta banakoaren arteko harremanen nolakotasuna eta baita egun, elkarrekintza espazioan ematen diren zenbait erreakzioak ere azaltzeko. Hiri bera al da historiatik eta behin eta berrito iristen zaigun hiria? Edo bestela esanda, espazio bera dela esateko nahikoa al da oroimen kolektiboan txertatutako zenbait irudi historikoak egokiro gaurkotuta plazaratzea?

Bi, giro urbanoan hiria ez da pentsatzen eta garatzen ikuspuntu historikotik; hirian, historiak ez du balio identitate kolektiboaren markoa eratzeko eta mugatzeko, ezta lurraldeak ere. Espazio “a-urbano”an, berriz, hiri-fenomenoa sortzen da garapen historikotik abiatutako elkarrekintzen ondorioaren urratzaile bezala, horregatik aro posmodernoa eta espazio urbanoan kokaturik ez da posible *oraina* gertakari historikoen hurrenkeraren azkeneko urratsa bezala adieraztea, ezta espazio urbanoan kokaturik izaera “a-urbano”-ko kolektibo izanik ere. Historia horrekin zer ikusirik ez daukaten gertakariez mediatuta dagoelako beraz, egitura horri eusten dioten ereduak, printzipioz, ez lirateke ongi txertatuko globalizaziotik proposatzen diren jarduera-esparruetan eta horregatik eredu berri hori finkatzekotan, bere bideragarritasunak errealtatearen irudikapenean erabilitako sinbolismoaz baliatzea eskatuko luke.

Interesatzen zaizkidana ez dira bakarrik hiria, konurbazioa, metropoli edota bestelako gizarte ereduaren eraikuntzaren inguruan sortutako egoerak, tartean agertzen diren eta egoera horien zioa diren elkarrekintzarako baldintzak baizik, hauek ulertuta botere jardueren ondorio gisa.

Eta hauek finkatu eta garatu dira gehien bat hirian bertan, horregatik hiriaren eraikuntza ez da gertakari neutroa eta prozesu horretan espero da hiriaren espazio arkitektonikoa partekatzen duten kolektiboaren artean nortasun-fenomeno berriak ager daitezen.

Identitate berriaren osatze prozesu horretan eliteek planteatzen dute esparru bakoitzean egon behar diren nortasun mota eta maila, proiektu askoz handiago baten eta interes jakinen alde jokatuko dutenak. Honi buruz lekuan leku agertzen dira azter daitezkeen zantzuak eta egoerak eta nik, hemen oso zabal agertzen ez bada ere, Hondarribiko arrantzaleena hartu ditut abiapuntu erreferentziala gisa.

Egoera simple samarra da, dauden hirien gainetik eta hauek gailenduz, Europa Batasunaren eskakizunak direla eta, metropoli baten eraikuntzaren proiektua aurrera joaten da. Bertan, Eurohiri baten sorkuntzaren lekukoak izan gaitzake, galdera multzo planteatzen duena eta mezu ofizialaren triumfalismoaren aurrean antropologia urbanoaren bidez desmitifikazioarako gaiak proposatzen ditut.

Tesi nagusiak, igarri ahal denez, haxe dio: Badela halako harreman estua hiriaren eraikuntza, zentzu identitarioaren historizitatea eta elitearen existentziaren artean. Hau da, Hondarribiko hiriari hiru une fundatzaile erantsi omen diote, alegia XIII. mendean, XVII. mendean eta XXI. mendean, hurrenez hurren, *Carta Puebla-ri*, *Hiria* izendatze uneari eta *Eurohiriaren* egitasmoari dagozkienak edo bestela esanda aurremodernismoa, modernismoa (Ilustrazioa) eta posmodernismoa, eta ez zen kasualitate hutsa izan.

Garaiz-garai eta hauetako bakoitzaren inguruan, dagokien eliteek eraiki zituzten behar besteko baliabide zentzudunak etengabeko lotura historiko-identitarioa osatzeko. Hiru kasutan ikus dezakegu hiriaren eraikuntza ezberdinaren gaineko kontrola edukitzea izan zela eliteen interesak gauzatzeko eta beren pribilegio mailan irauteko ahalbidetu zena. Kontrola horren bidez bilatu eta garatu ziren lekukotasunean oinarritutako nortasun irizpideak. Baina irizpideok objektiboak –eta sinesgarriak– izateko errealtatearen irudikapenen emaitzak izan behar ziren, hau da, espazioarekiko eskarmentuarena eta bere kontzientziarena, historian objektibatu portaera-kodeak. Horrela, errealtatearen definizioa eta bere irudikapena elite jakin baten definizioaren une bezala uler daiteke, honek jakin baitu elkartzen errealtatea eta bere irudikapena.

Horretan gaude.

1. Aintzat hatzen dut hemen LEFEBVREK egindako taxonomia: alegia “*Sociedad urbana es aquella que surge de la industrialización*” (1980).

1. PLANTEAMENDU HISTORIKOA

Hondarribiko herrixkaren jatorria Erdi Aroan kokatu behar dugu, (IX. mendean seguruen) dorretxe baten inguruan omen sortu, garatu eta zilegitutako eraikinei, gotorlekuan eta merkatuan oinarri zeukan egitura feudalak eman omen zizkien babes eta segurtasuna, hiribilduaren izaera eman arteraino. Eta badira berriak jakinarazten digutenak garai goiztiar hartan murrue barruan garatutako gizarteak bere jarraipena bazuela, murruz kanpo zeuden aldiriko arrantzale, nekazal, ikazkin eta abarreko taldeengan².

Zerk eman zion hiribildu honi bere izaera, itsasoak ala gotorlekuak? ala biek? Bada esparru horiek izan ziren elite burgesak eta nobleziak sortu eta garatzeko erabilitakoak.

Hiriaren fundazio ofiziala (1203. urtean) besteak beste, merkataritza-burgesia erakartzeko eta horren eskakizunak asetzeko egina izan omen zen³, horrek suposatu zuen gizarte espazioaren egiturari beste planteamendu berri bat atxikitzea eta ordenu soziala aurreneko aldiz, ez gizarte harremanen nolakotasunean baizik eta elementu fisiko-arkitektonikoaren bidez eskuraturiko egoeran oinarrituta izan zela. Espazioaren banaketa fisikoak gizartearen ematen ziren ezberdintasunen isla ziren (edo bestela esanda, espazio honek sinbolizatzen zuena; hots, gerlari izaeraren ezinbestekotasuna mugako zaintzaile gisa eta aldi berean, itsasbazterrean egoiteak markatzen zuen bere jarduera ekonomikoaren izaera).

Egoera hori ez zen oharkabeko gertakari izan bertako nobleziarentzat, Feudalismoak gotorlekuak hiri izendatu zituen, horrela jauntxo armatuen eta Elizaren babesa hiribilduen ordenu hierarkikoaren ezinbesteko osagai bihurtuz.

Planteamendu honetan agertzen dira nabardura oso interesgarriak, alde batetik arlo ekonomiko eta soziopolitikoaren arteko lotura, (Modernismoan galduko dena) posible bakarrik produkzio eta errepro-

2. Erdi Aroan esparru "zibilizatutik" kanpo bizitzeak zer suposatzen zuen jakiteko hiriari buruzko gaurko kontzeptualizazioa erantzi beharko genuke, ez zen izango arlo sinbolikoan suposatzen duena, "kanpoan dagoena" normaltasuna eta normatibotasunatik kanpo dago baina aldi berean onartutako eredu sozial eta ekonomikoari dagokio. LEACH, Edmundek (1989:85) dioen bezala, "...boterea, gizabanakoen arteko harreman-guneetan datza, muga lausotuen lekuetan alegia" hau da, banakoak inoiz ez direla bere mugetan zehazki identifikatuta, beti omen da interpretapen pertsonalerako gunea eta hor sartzen da instituzioa edota korporatibismoaren irudia, bere egoera liminala zilegitzen eta zuritzen zuen erreferentzia identitarioa. Horregatik murruz kanpo bizitzeak bazterte espazioari bezain esparru identitarioari egozte suposatzen zuen.

3. TENA GARCIA, M^a S: (1997) Egile honek interpretatzen du Antso VI.aren *Sancto Sebastianoko* Forua kokatze horren ondorioa izan zela, beranduago 1203. urtean Gaztelako Alfonso VIII.ak Hondarribian egikaritu zuen bezala, Foruaren beharra eta zioa leku horien populatzean zeutzan –eta populazio horrek gara zezakeen merkataritza jardueran– eta egia esan, azpimarratu behar da garai hartan bertataririko gaskoi populazio horrek zeuzkan esperientzia eta harremanak merkataritza jardueran.

dukzio prozesuak batzen diren gizarte ereduak, bestetik Erdi Aroan erreproduktzioarako baldintzek lekukotasunarekiko –besteak beste– zeukaten atxikimendua, horretaz ikas daiteke ikusten badugu esparru erlijiosoak eta ahaideko harremanak produktzioarako baldintzak nola eragiten zituzten, hau da, lurraldetasunak balio izan zuen taldearen iraunkortasunerako erreferente identitario gisa, ekoizpen eta gizarte harremanek jarduera ekonomikoaren arloa zehazten zuten bitartean.

Garai honetako sistema soziopolitikoren eruditik ondorioztaturiko ekoizpen eta gizarte harremanek egin zuten posible merkataritza-jardueren kontrola eskuratu zuen oligarkiarren sorrera, aurrerago botere politikoa ere eskuratu zuena, eta honek, berriz, sustatu zituen hegemonia ematen zioten baldintzak. Merkaturia eta erregimena, ekoizpen eta erreproduktzioa bi esparru diferentziatuak bezala azaltzen zaizkigu eta horrela agertzea beharrezkoa zen bideragarriak eta funtzionalak izateko baina gizarte-ereduaren erreproduktzioarako benetako baliabide gisa jokatzeko zutenak eta produkzio arloan ezinbesteko osagaiak zirenak, Ermandadeak, Elkarateak, Kofradiak e.a. izan ziren. Horrek suposatzen du gizartearen alde instituzionalizatua eta talde-egitura zeukana hegemonia osoz mugitzen zela, lasai asko existitzen zela banakoaren irudiaren aurrean –hau, oraindik ere existitzen ez zelako–. Eta hori nabarmena da ikustean lan esparruetan hartutako erabakien nolakotasuna eta eragina jarduera normatiboan oinarrituta zeudela baina eredu berbera luzatzen zen gizarte eta ekoizpen harremanen esparruetaraino.

Hondarribia, uste ohi denez, arrantza kulturaren inguruan garatutako herria izan zen. Hala ere eta bertatik bertarako jazarpen dokumentala burutzean garbi erakusten zaigu bertako arrantza jarduera ez zela instituzionalizatua izan *Kofradia* ezarri arte (XIII. mendean) Honek zuen jomuga sozialaren atzean interesa ekonomikoaren inguruan garatutako botere espazioak sortzen ziren, arrantza osagai zirkunstantzialpean zegoen jarduera ekonomikoa izanik *Kofradia* arrantzale-kolektiboaren zati baten interesak bermatzen zituen instituzioa zen. Arrantzatik ateratako etekina⁴ era ezberdinean banatua zen bitartean, jarduera horretatik –edo hobeto esanda, jardueraren etenalditik– sortutako galerak komunitarizatzen ziren *Kofradiaren* bidez⁵.

4. Zein da jarduera ekonomiko partekatutako baten mozkinak partitzeko (edo lan-indarren salmentaren prezioa jasotzeko) erabiltzen den sistema aurrekapitalistaren iraunkortasuna bermatzeko arrazoia? Feudalismoa, industrializazioa, terziarizazioa...garai ekonomikoaren gainean, baxurako arrantzaren giroan lan-saria partekatze eta jasotzeko antzinako sistema baten arabera egiten jarraitzen da. Beharbada hori ulertzeko ez da erantzun bakarra, egoera ezberdin multzo baten ondorioa izan daiteke, kolektibo horren edo gizarte zabalean dabilen onuradunen mesederako balioko lukeen egoeraren ondorioa izan liteke.

5. ERKOREKA GERVASIO, J.I. (2000: 179-222).

Los maestros conformaban, sin excepcion, la elite economica y social de la comunidad pescadora pero mas alla de los limites gremiales los maestros solo en algunos casos revestian la relevancia social como para formar parte de la oligarquia local

...

Alboan gelditzen ziren merkataritza eta pirateria jarduerak, miseria gorriko eta porrota militarren uneak, modernitatean izandako protagonismoaren beherapenez eta prozesu urbanizagarri gordinaz, baita krisi ekonomikoa eta sozialaz ere isiltasun oihala zabaldu zen eta azkenik Hondarribiko historia kolektiboa, subjektiboa eta instituzionalizatua, une loriatsuz eta Erdi Aroan murruten inguruan gartutako gertakariez osatuta gelditu eta hala iritsi zaigu, finkatuta oroimen kolektiboan interpretapen jakin baten bidez eta ez da harriztekoa modernitatea ulertzen badugu berezitasunaren garaia bezala. Modernitatean sortzen dira banakoa eta heterodoxia, gizarte-klasearen kontzeptua eta gizarte garapenerako gatazkaren hastapena, bertan lehendabiziko aldiz, globala eta lokala elkarren aurka aurkezten dira.

Horrenbestez, mendeetan zehar eraikitako historiaren interpretapenaren bidez sare estu bat bilbatu da *oraina* historikoki pentsatua⁶, zilegitua eta zuritua izateko eta *orain* horretan sartzen da darraion *etorkizun* logikoa, zentzu denborala *aiône-logiko*⁷ batetik ulertuta nolabait.

Egun, nortasun kolektiboaren oinarri gisa balio zuten hastapenak krisian daude, eta posmodernismo aro honek eskaintzen dituen baliabideez baliaturik, historia, hiriaren idazkari balitz bezala, erabiltzen da bi une eta espazio ezberdinen artean *continuum* eraikitzeko, *iraganak* hartzen du bertan bere zentzu zirkularra eta beren burua *orain* historiakoan aurkitzeko ez-gai denak irudikapena erabiltzen du amaiezineko *oraina* sinkronikoan bizitzeko.

Azkeneko urteotan pertsonaiak, heroiak eta egoera epiko-fundatzaile mitikoei ala benetakoei egindako omenaldi eta ospakizunen bidez gogora ekarri nahi dute Hondarribia lotuta dagoela Europari, eta jomuga hau hertsiki lotuta dagoela bere iza-

...
lekuko burgesia honek

ocupaba organos de gobierno de la Hermandad consiguiendo acuerdos gremiales favorables a sus intereses, entre las "ventajas y utilidades" que lograban estaba el que la Cofradia fuese garante y aseguradora de las lanchas que padeciesen averias o desperfectos, es decir se comunitarizaban los riesgos.

Erkoreka ari da XVII-XVIII. mendeetan eta kontuz ibili behar dugu halako egoera aurreneko beste mendeetara inferitu nahi izanez gero. Arrantza ez da izan "beti" jarduera bera, jarduera erauzgarria eta harraparia izan bada bere zentzua garaiz-garaian aldatuz joan da eta prozesu honetan garaturiko ezaugarri ezberdinek sortarazi dituzte balore eta izaera ezberdinak. Kofradiak berak oso egin behar ezberdinak izan ditu unibertso horretan eta historian zehar. Eta orain lehen bezala Kofradiak dira herri-herriaren komunitate horren erro edo kontza, unibertso horretan elite baten pertsonifikazioa izanik eta bere eragina, askotan sinbolikoa bada ere, erakunde gisa daukan protagonismo eta balioen araberrakoa da. Orain arte iraun duen egoeraren arabera arrantzaleak osatu eta eduki duen prestigioa ez da botere politikoarekin bat etorri, bere botere maila, gehien bat, herri baten komunitatean (edo herri osoan, hau arrantza ekonomiapean izanik) murriztuta zegoen, eta zenbait kasutan gaur "lobby"tzat ezagutzen dugunarena eginez.

6. JAMESON, F: (1996).

7. Kontzeptu honetan *orainak* barne sarturik ditu iragana eta etorkizuna, beraz *oraina* soilik existitzen omen da.

rari, hau izan dela bere jomuga naturala eta logikoa eta, gainera, "betidanik" izan duela horretarako bokazioa.

2. HIRI POSMODERNOAREN IZAERA

Inguru aldakorraren prozesutzat hartu behar da hiri-sistema, beharko, planteaturiko halako gizarte-inguruan sistema urbanoa hegemonikoa izaten jarraitzeko botere harremanen nolokotasuna birmoldatzen jakin behar izan zuen. Hiri-inguru batean aldatzen badira ekonomia ereduak, merkataritza-jarduerak, hartu-emanen hedadura, teknologia mailak, sinbologia edota irudikarioaren esanahia, hiriaren beraren izaera aldatzen da eta honekin batera hiriari buruz bere biztanleek duten irizpidea. Hiri da, une horretan eta aldi berean, aldaketaren objektua eta subjektua baina horrez gain bada egoera bati eutsi nahi zaiona, hau da, hiri nortasuna jarduera ekonomikoren edo lan-kulturaren gainean eraikita bada lan-jardueraren eta lurraldearen arteko harreman historikoaren estekari eutsi nahi izango zaio nahiz eta horretarako errealitatearen irudikapena manipulatu behar den, bestelako jarrera bere buruaren kontra joatea izango litzateke. Lan-kulturaren eta identitatearen arteko harreman kausalak beharrezkotasunean oinarrituta egon behar dira, hor sortzen da egoeraren naturaltasuna. Hala ere kontuan hartu behar da bikoiztasun hori ez dela bakarrik kolektibo baten nortasuna finkatzerakoan, lurraldetasuna, kasu, beste osagai bat da, gertatzen dena da kasu honetan lurraldetasuna eta lan kultura hertsiki lotuta daudela.

Eta hala jarraitzen da, Eurohiriaren kasuan lurralde hori da, hain zuzen, ekonomia jarduera berriaren objektua, hiria bera da, nolabait, merkataritza jarduera horren salgaia. Horrek suposatzen du lurraldetasuna erreferente identitario izan bazen eta oraingoan ere hala jarraitu izaten nahi bada lurraldea-ekonomia-identitatea hirukoitza indarrean jarraitu behar dela. Gertatzen dena da lurraldea estetika urbanistikoaren alde bat bihurtu dela, eta itsasoa bera bezala bere alde espekulatiboan aintzat hartuta izanik etengabeko reidentifikazioaren objektua izan direla.

Hondarribia mugako hiria da, estatu ezberdinen arteko mugakoa, itsaso eta lurraren artekoa, denbora historikoaren pasartearen artekoa, errealitatea eta irudikapenaren artekoa, Nafarroa eta Gaztelaren arteko mugakoa eta oraindik ere, modernitate eta posmodernitatearen arteko kontraesanekoa, alegia muga "naturalen" alde bat, historian zehar oroimenean finkatuz joan den errealitate objektiboa eta ildo horretan, etengabeko liminalitate sinboliko horretan bizitzeak eragin omen zituen bertako espazioaren sorrera eta garapena; esan nahi dut gizarte antolakuntza eta elkarrekintzarako jarrerak, kanpoko faktoreak zein barneko egiturak sustatu zituzten jarduera ekonomikoa jakin baten garapenak eta beraiazko portaerak eragin zituztela.

Ez da egia posmodernitatean langile-klasea desagertu denik, desagertu dena da klase hori identifikatzen zuten banakoen identitateari buruzko kon-

tzientzia eta ezaugarriak (bere baitarako kontzientzia). Halako zerbait gelditu zen agerian eta islatzen da Hondarribiko arrantzaleekin gertatu den egoeran. Arrantzalea izateko onartu behar ziren zenbait baldintza sinboliko eta sozialak⁸, egoitza, bizitza-maila, *Kofradiaren* arautegia, lekukotasuna, lan-kultura, elkarrekintza-motak, *partia*, funtsean, kolektibo bati egokitzea non osatzen ziren eliteak errealitateari buruz egindako irudikapenen printzipioak eta ezaugarriak, horrela onartua eta instituzionalizaturiko markoan, langilearen irudia ez zen sartzen, alegia, arrantzalea, Hondarribikoa inoiz ez dela *langile* izan eta ondorioz inoiz ez duite *langileria* osatu.

Testuinguru horretan eskatzen ziren arrantzale ona izateko baldintzak, garai ezberdinetan eta zegozkien interesen arabera erabiliak, balio izan zuten sektorea kontrolatzeko, nortasun baldintzak ezartzeko eta klase interesak oztopatzeko, testuinguru horretan ulertu behar da baxurako arrantzaleek duten kutsu pre-modernoko izaera.

Aro Modernoan Hondarribiko egoera nahasia izan zen, alde batetik krisi egoera nabarmena izan zen, eta pentsa daiteke esparru globalean erregimen absolutistari aurre egin izanak zer ikusi zuzena izan zuela egoera horrekin, eta bestetik liberalismoaren korranteak sustatu zuen banakoaren presentzia, bertan finkatutako errealitatearekin bat ez zetozena. Dena dela joera berri honek ez zuen izan eragin iraunkorrik, hiriak, industrializazioaren ezean, eutsi zion ohiko elkarrekintza ereduari eta “modernismoak” ekarritako krisi ekonomikoa baino ez omen zen nozitu.

Hondarribiko hiriaren hiru aro historikoen artean dagoen lotura ez da zurriz planteamendu bakar eta unibokoan, banakoaren existentzia eta ekintzarako bere gaitasuna izatea ala ezean datza alde eta hain gogoko den Erdi Aroko botere jardueraren inguruan sortzen ziren baldintzak zirela eta, ezin dira abiapuntutzat hartu egungo botere harremanak ikasteko edota konparatzeko. Banakoaren eza da gurearekin alderatuz, garai hartako ezaugarriak nabarmenenetarikoa, eta, aldiz, banakoaren ezintasuna da oraingo honetan azpimarragarrienetarikoa, garai hartan banako kontzeptua kolektiboan disolbatuta bazen oraingoan banakoa globalizatuta dago eta antzeko ondorioak ematen badira ere errealitate ezberdinei erantzuten zaie. Aldatu ez den egoera soziala izan da botere jarduera modernoaren adierazpena, “landa”⁹ ezberdinen arteko lehiatik sortzen dela, hots erabakiak hartzeko benetako gaitasuna ez datzala gizabanakoengan.

8. HEGEL, G.F. *Filosofía del Derecho* 1975, (§200) Egile honek honetan azaltzen du *lanerako gaitasunari* buruzko naturaltasuna.

9. Zuzen iruditzen zait soziologo frantsesak landutako gaia hona ekartzeari, BOURDIEU-k, honi eman zion definizioaren bidez aski erabilgarria suertatzen da gizarte portaera.

Kanpoko gizarte egiturak; historikoki ezarritako gizarte jarra ezberdinen esparruak, (landak) hau da, historikoki mugatuak ziren jarrearen arteko harreman objektiboak.

Ikusi honi buruz GUTIERREZ, Alicia B. (2002).

3. METROPOLIAREN ZURIPENARI BURUZ

Egitura politiko-instituzionalak gailenduta gelditu ziren ekonomia globalaren indarraren eta ahalmenaren aurrean, beharbada Nazio-Estatuaren eredu politikoari egotzi izana izan zen merkatu-ekonomiaren aurrean gehien oztopatu duen egokitze prozesua eta ekonomian erabakiak hartzeko ahalmena Estatuaren partehartze zuzenetik pribatizazioz igaro zen.

Botere jardueraren ahalmenaren lekualdatze horiek protagonista berrien eragina bultzatu dute, Europako zenbait hiri handiren garapena eta zentralitate nabaria ikusita ekonomia dinamikak bideratzeko ahalmena esku pribatuetan gelditu da, orain arte filosofia keynesiarrean oinarrituta zegoenak amore eman behar izan du ekonomia globalaren dinamikaren aurrean eta horretan estatuen jardura politikoak eta sozialak galdu dituzte erabakiak hartzeko ahalmenak.

Eurohiriaren planifikazioa European barrena dagoen dinamika lehiakorrean kokatu behar dugu, ez finantza unibertsoan edo industrialean bakarrik, (bere burua Merkatu Bakarrari behar bezalako erantzunak garatuko dizkion interes ekonomikoko elkarre europartzat jotzen du) baita urbanismoa arloan eta kulturarenean ere; hau da, gizarte elkarrekintzan eragina izango duen hirien planifikazio sozio-espazialean gizarte errealitatea antzaldatzeko edo irudikatuz, horrela, *Europako Lurralde Estrategiak*¹⁰ Eurohiriak, dagokion zonalde europarrean bete behar zituen proiektuen ildoan nolakotasuna markatzen zuen.

Une honetan dagoen joerarik nagusia hiri-sare funtzionala osatzea da eta hiri handiak suposatzen duten zentralismoaren aurrean aurkezten den aukera hiri ertaineko sarea zertzea da. Helburua, Europako ardatz nagusiekiko leku lehiakorra izateko ahalmenik lortzeko aukerarik ez bada,

10. European Integrazioaren prozesuak eskatzen du estatu bakoitzaren eta guztien baliabideei buruzko diagnostia egitea non ordenamendu-sistemak garatzeko onartutako erritmoak finkatuko diren. Delako “cohesion territorial” edo lurralde-lotura aintzat hartuta? izan zen Komisioaren bigarren txostena (2001) eta bertan azpimarratu zen erabaki-maila ezberdinen arteko koordinazioaren beharra, horrela Europa Batasunak (EB) bere lurraldea zortzi zonalde ezberdinetan banatu zituen eta hauetako deritzon “Arku Atlantikoan” sartuta dago guri dagokiguna. *Europako Lurralde Estrategiak* bereziki arduratu zen estatu ezberdinen arteko zonaldeen integrazioaz, –INTERREG Ekimenak– honen jomuga izanik lurralde bakoitzak dituen lehiakortasunerako baliabideak garatzea eta aurkeztea, azpiegituren sistemaren bidez edo turismo eta zerbitzu ezberdinetarako gaitasunaren bidez. Nahia honetan eta EBren eskakizuna kontuan hartuta *Europako Estrategia* horiek bere isla izan dute DOT delakoetan, *Lurralde Antolamenduen Gidaleroetan* alegia. Edozein kasutan “Arku Atlantiko”ari dagokion zonaldearen ezaugarriak dira eskakizun horiei egokitu behar direnak eta horien artean honi dagozkion hiriak dira, gutxi homogeneizatutako hiriak eta gutxi artikulatuak Europako beste zonalde askoz dinamikoekin. Horretan sortzen da indarrez eronkarik handiena, nola iritsi EBak markatzen dituen jomugetaraino lekuko egitura sozial eta elkarrekintza ereduak suntsitu gabe? Ezin da, egitura urbanoa eta “a-urbanoak”, sare logistikoaren mesedetan aldarazten badira egitura soziala eragina izango da, hainbestearaino ezen gizarte berri baten aurrean aurkituko garen.

behintzat Europako periferia indartuz zonalde honi osagarritasun zentzua emateko gaitasuna lortzea da. Nahikari honetaz kontziente izanik Europako Komisioak berak proposatu zien mugako eskualdeei estatuen arteko lankidetzeta eta Europa Batasunaren eraikuntzaren lagina izan zedila.

Horrek eskatzen du hiri txikien berregituratze sozioekonomikoari ekitea, baina beti ere esparru bakoitzak dituen ezaugarrien eta ahalatasunen arabera, (subsidiaritate hastapenaren bidez) horrela, gure artean, garraio azpiegitura, informazio teknologikorako bideak eta berariazko abiapuntu baldintzak izanik planifikazio berrian aintzat hartzen diren osagaiak.

Planifikazio berriaz mintzatzen naizenean lekuan lekuko krisi garaia gainditzeko saiakeraz ari naiz, izan ere krisi ekonomikoaz gain esparru sozialean eta instituzionalean ere agertu dela kontuan hartu behar dugu eta horrek, modernismo garaian gertatu zen bezala, gizarte egituraren birmoldaketa eskatzen zuen, elkarrekintzetarako baldintza berriak eskaturik edo ekoizpen eta gizarte harremanek galdeginik.

Planteamendu europar horretan jokatu da euskal lurraldearen berplanifikazioaren alde eta kasu honetan egitura soziala mantentzen den bitartean egitura ekonomikoari ekiten zaio, azkeneko honek hura eragingo duelakoan eta gainera kostu politikorik gabe. Testuinguru horretan espero dezakegu orain Baiona-Donostia Eurohiria bezala agertzen zaiguna erraz bihurtu litekeela Bilbo-Bordelerena, halako zonalde europarrak bermatuko bailuke Atlantiko aldeko sistema polinuklearraren integrazioa.

Dakigunez makroproiektu hau ez da bakarrik joaten "garapen iraunkorraren" ildotik, horretan sartzen dira Pasaiaiko kai berria eta Bilbokoa ere bai, errepide berriak, AHT-ren proiektuak, aireportuen zabaltze, ikuskizun-kultura egitasmoak, terziaziaziorako joera, e.a; hots, Europa Batasunak planteatzen duen egitura industrial eta zerbitzuzkoa, nagusia den joeraren osagai gisa.

Paperen partizio horretan Eurohiriaren proiektu honi egokitu zaiona salgaien igarobidearena da, korapilo intermodala nondik ekoizpen eta merkatuaren arteko lekualdatze emango den, horretarako itsasbazterra, eta lurralde honen biztanleek "betidanik" erakutsitako garraiorako, merkataritzarako, eta europar bokazioa, omen dira, hain zuzen, Europa Batasunean ahalbidetuko duten eskubide osoko integrazioa¹¹.

4. HIRI BERRIA

Hiriari buruzko kontzeptu antropologiko eta soziologikoan, hiriak, espazio gisa, ez du merkatu-baliorik (truke-baliorik) eta beste garai batzuetan

kokapenak, izaera historikoak edota bestelakoak suposatzen zituzten erabilpen-balioaren baldintzek ezer gutxi balio dute oraingo egoera berri honetan. Oraingoan beste inguru batean kokatu behar dugu gure abiapuntua, non hiri posmodernoak jarduera estetikoaren ondorioa den, alde batetik; birtualitate osoan murgilduta dago eta hiri "bera" izanik garbi agertzen da ekoizpen eta gizarte harremanek bere morfologia eta urbanismo printzipioak aldatzen dituztela, baldin eta aldatzen badira planteamendu ekonomikoak.

Testuinguru honetan koka dezakegu fenomeno berri bat; jakin badakigu hirien arteko lehiakortasuna gauza berria ez dela baina oraingo honetan posmodernitateak markatzen duena da hiri bera dela salgaitzat agertzen zaiguna, alegia gizarte-espazioa eta bertan ematen diren elkarrekintzen prozesuak. Berregituratze sozioekonomikoak ezarri ditu merkatuaren parametro berriak eta hiriek, batzuek bestelako baldintza konpetitiboren ezean, bere buruak eskaini behar izan dute lehiakorrek izaten jarraitzeko.

"Produktu-hiriak" ere merkatalgai diren beste edozeinek dituen ezaugarriak behar ditu izan, baina hiriaren zentzu berri horrek, nola eragingo ditu biztanleak? Ez ote dira bihurtuko hauek ere merkatalgai?

Oraingo honetan aldatu dena da informazio globalaren eremuan sartuta izatea eta horren arabera hirien planteamendu lehiakorra ez da oinarritzen lekuko merkatuan eduki dezakeen mailetan baizik eta komunikapen globalean jokatu ahal duten kokapenean. Hiri ezberdinen egonkortasun maila, urbanizaziorako ahalatasuna, hazkunderako joera eta komunikapenerako erraztasun teknologikoa eta logistikoa dira garapenerako parametroak eta oraingo hiri-balore erantsiak finkatzeko gutxiengo baldintzak eta hori ikusita nekez uler eta onar daiteke halako baldintzetan *garapen iraunkorra* bezalako zerbaiten inguruan buru daitezkeela.

Horretan agertzen da *hiri-marketina*, zeinen bidez hirien marka-irudia eta jarduera kualitatiboa merkatu globalean eskaintzen diren. Eta normalean marka-irudi hori arrakastatsua bada (hau da, bertako biztanleentzako erreferente identitario bihurtzen bada) konstatatzen dugu marka-irudi hori hiriaren irudikapen kolektiboaren estereotipo bihurtzen dela. Hiriaren irudikapen ikonikoa bihurtzen da hiritar idealaren *egoitza*.

Ekonomia globaleko eredu honetan garraio eta telekomunikazio azpiegiturak nahiz ingurune egoikiak eta garbiak eta hiriaren egoera sozialak jokatzen dute balio erantsiak bezala, ahaztu gabe lurralde honen izaerak eta historian galdutako jatorriak berariazko balore eta nortasunaren espezifikotasuna ematen diola Eurohiriaren proiektu honi (beste balio erantsi bat).

Hiriaren irudikapenak, horrela, batetik etorkizunari begira aurre egiteko prestu dagoelako itxura eman nahi du eta bestetik horretarako eskubideak eta zilegitasuna historian irabazitako mesedeetan oinarrituta daudela.

11. Ikusi,; Eusko Jaurlaritzak *DOT Bases del modelo territorial* in: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49565/es/contenidos/informacion/dots/es_1165/punto6_c.html-63k.

Irudikapenaren prozesuak bere baitan darama identitate ezarritakoaren enbrioia, lurralde honi itsatsitako espezifikotasun horien artean aurki dezakegun lurraldetasunari lotuta zegoen nortasun hastapenaren berrinterpretapenak oroimen kolektiboari buruzko kontrolaz hitz egiten digu, lekukoa ez da zerbait eta betiko finkatua, gai manipulagarria da¹² eta oraingo honetan ezarri nahi izan zaio muga-kultura delakoa. Esan behar da *Txingudin*, Irun hiriak eta Hendaiak badute azkeneko ia bi mendeotan garatutako muga-kultura, alegia lan kultura zehatza zeinek elite-hiriaren izaera eman dien.

Gonzalez Alcantud-ek dioenez boterearen alde-rik garrantzitsuenetarikoa bat da mito fundatzaileen kudeaketaren ahalmena¹³, oroimen kolektiboaren reifikazioa, etengabe erabilitako irudi multzo baten gainean eraikitako identitatean zertzen da baina gertakari hori, ez da halabarrezkoa, elitearen eginbeharra da.

Horrek denak hartzen du parte oroimen kolektiboan iragan loriatsua finkatzean. Elite politikoak eta baita ekonomikoak ere hiriko iragan historikoa- ren aipamena erabiltzen dute baliabide errepikariz- zat, aparteko gertakizunak, urteurrenak, inaugurapenak, omenaldiak, eta Erdi Aroari etenga- beko erreferentziak dira politika horretan erabilita- ko ekintzarik nabarmenenak, bitartean kultura jarduerako egitasmo osoaren gabeziari buruz min- tzatzen zaigu udal politika.

Precedo Ledo egileak dioen bezala (1996:35) *“distantzia kilometroetan baino denboran neurtzea garrantzitsuagoa da”* eta egoera horrek eragiten du, ez hiriaren kokapen fisikoa, bere garapenerako plan estrategikoaren izaera baizik –garapenerako distantzia ongi komunikatutako baldintzez neur- tzen baita–, hala ere ikuspuntu posmodernistatik eguneko bizipenak eta banakoaren eskarmentuak sinkronia a-historikoa kokatu beharko genituzke, hau da, denboran finkatzen dugun espazioari nor- tasun-kategoria atxiki nahi zaio, hiriak berak dau- kan kategoria identitarioa espazio horretan garatutako ezaugarriek itsatsita dago eta banako urbanoa ohartu da horretaz, ondorioz banakoa desagertzen da bere dimentsio erabakigarrian dimentsio kategoriko orokorragoaren parte izate- ko, horregatik posmodernismo giro horretan ager- tzen diren mito berriek zer ikusi zuzena daukate irudikapenarekin, demokrazia, merkatu librea, mediak, eskubideak e.a non ekintza arloa kontzep- tuetatik irudikapenera igarotzen den.

Horregatik erraza da igartzea halako egoera berriak, –eta honi posmodernismoan sartuta dago- ela aitortzen ez bazaio ere globala den heinean berria dela onartu behar dugu– banako berriak sor- tarazten dituela; oso egoera espezializatutik egoera lehiakor zabalera igarotzeak, lekuko merkatuan oinarritutako hirietan suposatu duena da desoreka- tu duela beren buruen egitura, eta gure kasuan

bezala, espezializatuta garabide industrial zaharki- tuan edo krisipean sartutako aurreneko sektoreari dagokion eredu erauzgarrian.

Esparru pragmatikoago batean ikus dezakegu egungo hirien egoera lehiakorrek ez direla oinarri- tzen bere kokapen fisikoan baizik eta kokapen horretan garraio sare egokia osatzeko ahalmenean. Hiriak, lehiakorrek izateko gutxiengo baldintzak eduki litzaketan lekuetan “eraikitzen” dira, bestela bere garapen ekonomikoa zenbait zeharkako jar- duerataro murriztuta gera liteke, egun urtaroko turismoa, kasu.

Horrek planteatzen du hiriaren garapena merka- tuaren bilakaerari darraiola, hiriaren garapen fisi- koa kualitatiboki aldatu da baina hiria ez da espazio neutro bat, edo behintzat orain arte ez da izan eta itsatsi nahi zaizkion egonkortasun politiko- ak eta sozialak hiri egoeraren tratamendu akademi- koan ere bere eragina izan behar du.

Baina bestetik hiria bere inguruko beste hirie- kin asimilazio prozesuan dagoela ziurtatzen da, horrela *abantaila konparagarri* ezberdinak esparru bakar bati balegozkio bezala lantzen dira. Azkeneko hau nabariagoa da Europako Akta Bakarraren 8. artikulua indarrean jarri zen ezker, 1993. urterako Europa Batasuneko Estatuen arteko Merkatu Baka- rra indarrean jartzeko muga administratiboak desa- gertu zirenetik alegia. Dena dela irauten dira beste errealitatearen gainetik estatu bakoitzari dagozkion legeria eta zenbait zerbiztu jakinak izan ezik bene- tako eta osoko lankidetza oztopatuta dagoela.

Orain hiria gestio ekonomikoaren objektua da eta kudeaketa horretan –produktu bezala– dagoen lehen tasuna produktu horretarako irispidea lortzea da, ez zaigu, beraz, harritu behar garraio eta hirien arteko lotura-sareari emandako garrantzia.

Horrela, merkatuan interes amankomuna dau- katen lurralde bateko hiri xorta elkartzen dira hiri- sare batean¹⁴, orain arteraino oso hurbil baziren ere hirien arteko lehia elkarlanerako gogo ofiziala bihurtu da eta hiri-sarea izan da elkarrekin lantzeko irudirik usuena. Helburuak ez dagokio hiri bati edo besteari baizik eta lurralde batean elkarturik dau- den guztiei, hau merkatu sektore bezala aurreikus- ten da eta bertan hirien arteko harremanak oso baten osagarritzko izaerakoak dira, horrela *abantaila konparagarriak* elkar osatzen dira, baina ez hori bakarrik, hiri sare horrek askoz handiagoa den sare baten beste “noduluekin” harremanak eduki ditza- ke, bai osagarriak direlako bai antzekoak direlako, horrela maila eta asunto ezberdinetan metropoli batek parte har dezake hiri-sare zabal batean.

14. Sare hauen adibideak hauexek dira: Network of Euro- pean Metropolitan Regions and Areas METREX (1996), Metro- poliaren mailako espazioa garatzeko.

Mission Operationnelle Transfrontalière MOT (1997) Mugaz gaidiko proiektuak sustatzeko.

Conférence des Villes de l’Arc Atlantique (2000) Europako alde atlantiarreko hirien arteko elkartasuna lortzeko.

Eta hauetako guztietako partaide da Eurohiriaren proiektua

12. GONZALEZ ALCANTUD, J. Antonio (2005:18).

13. Ib idem (2005:14).

Sare-egitura hau ETE, *Europako Lurralde Estrategia* delakoan sartuta dago, honek markatzen du Europako korridorean parte hartzeko arautegia eta iradokitzen du halaber, garapen sostengarrian sartuta burutu behar dutela egitasmo hori.

Baina hori teoria hutsa eta EBtik saltzen duen mezua da, errealitatea bestelakoa izanik. Arlo sozialean, politikoan, ekonomikoan eta kulturean eredu berriei ekin beharko zieten mugaz bi aldeetako populazioen elkarketak suposatuko luke dagoneko dauden eredu ordezkapena zertu beharko litzatekeela, daudenak baliogabetuak gelditurik; hau da, benetako aldaketa burutuz gero bi administrazio eta estatu ezberdinei dagozkien lurraldeek eredu administratibo-politiko berriean kokatu beharko lukete euren burua, EBtik proposatzen dena ez da biztanleen aldeko aldaketak burutzea baizik eta Europa Batasunaren mesederako lurralde hori erabiltzea, "Plataforma Atlantiar Intermodala" osatzeko eta, esan den bezala, hiri sare zabala eratzeke ere.

5. KOKAPEN JURIDIKOA

Baiona-Donostia Eurohiria bezalako proiektua oso marko juridiko zehatzean garatu behar da eta Espainia eta Frantzia estatuen arteko 1995eko "Baionako Ituna" delakoa, mugaz gaindiko lankidetzaren testuinguruan kokatutako tresna, *Eurohiria* proiektuaren ahaltasun juridikoaren baldintzatzat jo dezakegu. Haren bitartez, lankidetzaren mugaz bi aldeetan bertan dauden lekuko muga-udalerriek ez ezik esparru zabalean bi estatuen arteko mugatik hurbil dauden udaldeen, eskualdeen, departamenduek eta Autonomi Erkidegoek edo bestelako "lurralde-entitateak" ere gara ditzakete.

Europa Batasunaren testuinguruan, hau da, Europako Kontseiluak sustatutako *Europako Hitzarmen Markoaren*¹⁵ (Madrilgo Kontseilua) ondorengo zuzena eta osagarria, *Baionako Itunak* suposatu zuen ahaltasun zabalagoko tresna izatea. Itun honek ahalbidetzen zuen *Hitzarmen Markoa* indarrean jartzea ze Estatu espainolak hau sinatu zuenean bere erabilera alde biko hitzarmen baten barruan kokatuta egon behar zela proposatu zuen eta baldintza hau betetzen du, hain zuzen, *Baionako Ituna*-k.

Bi estatu, bi egitura juridiko eta bi administrazio batzen ziren lankidetzaren asmo horretan eta horrela zuzenbidezko baliabide komunak bilatu behar izan zituzten. Frantziak lankidetzaren hori gauzatzeko *Groupement Européenne d'Intérêt Public*¹⁶

izeneko lankidetzarako organismoa erabil lezakeen bitartean Espainiak ez zuen mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko arautegirik.

Horregatik, lankidetzaren formalerako egitura juridiko iraunkorra edukitzeak ahalbidetzen zituen –ekin-tza puntualak eta mugatuetatik harat– bestelako ekimen motak eta hori gauzatzeko behar bezalako esparru juridikoak hornitzen zitzaizkien bertako instituzioei, alegia Espainia eta Frantziako estatuen arteko lankidetzaren gorpuzteko muga-ekimen ezberdinei behar bezalako oinarri juridikoa ematen saiatu zen.

Pirinioen inguruko testuinguru geografikoan kokatzen diren eskualdeen badute berariazko beharrrak, sustapen ekonomikoarekin, garraio politikarekin edota gizarte garapenarekin zerikusi zuzena daukatenak, batzuk eta EBtik INTERREG ekimen komunitarioaren bitartez bideratu dira, beste batzuk, ordea, lekuan lekuko izakundeak dira bideratu behar dituztenak baina horretarako tresna juridikoak izan behar zituzten non aktoreak, gaiak, eskumenak eta ahalatasunak finkatuta geldituko lirartekeen.

Baionako Itunaren ahalatasuna agerian gelditzen zen *Ituna*-ren bere izaera horretan, horren bitartez, hain zuzen, gara baitzitekeen arestian aipaturiko *Interes Ekonomikoko Elkarte Europarra*-ren ahalmena, Eurohiri batek eskatuko lukeen lankidetzaren mailari erantzunez, horregatik *Hitzarmen Markoa* eta *Baionako Ituna* osatzen dira delako *Interes Ekonomikoko Elkarte Europarrekin*¹⁷, hau da, orain eta hemen *Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren Garapenerako Mugaz Gaindiko Agentzia* izenarekin ezagutzen denarekin.

Edozein kasutan, ikusi dugu, lankidetzaren horrek hitzarmenaren itxura eduki behar zuela eta bere hedapenak zehazten direla muga administratiboaren alde bakoitzari dagokien estatuen muga fisikoan, juridikoan eta politikoan, hala gertatzen zen, kasu *Bidasoa-Txingudi* izeneko hitzarmenarekin, berez, Hendaia-Irun-Hondarribiaren arteko Mugaz Gaindiko Partzuergoa izanik oso alderdi jakinetan baino ezin du jarduten, zenbait zerbitzuetan eta lekuko turismo garapenerako ekimenak esaterako¹⁸. Partzuergo hau, lankidetzaren egiturazkoa izanik, 2001ean barnesartu zen Eurohiriaren proiektuan *Baionako Itunaren* babespean.

Horrenbestez, Donostia-Baiona Eurohiriaren proiektuaren irudi juridikoak mugaz gaindiko lankidetzaren hitzarmenaren izaera hartu zuen, 1993an Baionan, Gipuzkoako Diputatu nagusiak eta BABeko distrituko Presidenteak sinatuta, lehen aipaturiko *Hitzarmen Markoa* eta lankidetzaren ez-formaleko bestelako tresna juridikoetan ere oinarri izanik, hitzarmen berri honek "Mugaz gaindiko hitzarmena" izena hartu zuen¹⁹ eta kontuan hartu behar dugu hitzarmen hau sinatu zela Baionako Ituna baino bi urtez aurretik.

15. BOE 248 (1990ko urriaren 16koa) Hemen agertzen da Hitzarmen Markoaren testua, dena dela hitzarmen hori 1980ko maiatzaren 21ean sinatu zela oroitarazi nahiko nuke.

16. FERNANDEZ CASADEVANTE, C: (1999:95) *En el marco del Derecho Comunitario Europeo encontramos la figura susceptible de ser utilizada en el marco de la cooperación transfronteriza entre colectividades territoriales: la "Agrupación Europea de Interés Económico" (A..E.I.E.) objeto del Reglamento CEE nº 2137 del Consejo de 25 julio 1985 y desarrollada en Francia por la Ley nº89-377 de 13 junio 1989.*

17. Zuzenbide frantsesaren irudi juridikoa esparru europarrean erabilia.

18. BOE 126/2003 ikus. Administrazio Publikoaren Ministerioaren 2003ko maiatzaren 14ko ebazpena.

19. ikus: www.basque-eurocity.com/upload/documents/ES/txt_oficial/protocolo.doc.

6. ARTIKULUAREN ONDORIOA

Planteamenduaren mamia hiriaren eraikuntza-aren inguruan sortu diren irudikapenaren azalpenetan datza, erdigune horretan dago Hondarribiko hiria, lan-jarduera batetik sortutako ekoizpen eta gizarte harremani lotuta, hainbestearaino ezen hiriaren ikono bihurtu diren.

Garai premodernoan Nafarroako merkataritzarako kaia gisa ezagutu zen moduan aro modernoan korso eta itsaslapurretaren gunetzat hartuta izan zen²⁰, aro industrialean, berriz, arrantzale gune eta leku turistikoaren izaera eman eta onartu zuten.

Hiri bera dela esan al daiteke? Hau da, historiografian oinarritutako identitate kolektiboak jarraitasunik eduki al du hiriko ikonografian? Lurraldean akaso?

Urbanoa posiblearen esparrua da, banakoaren dimentsioetatik harat ematen den egitura sozialari dagokiona, zerbait birtuala eta abstraktua eta aldi berean gauzatuta gizartearen portaeretan, joeretan, baloreetan; edozein kasutan ideologiarantz hurbiltzen da. Gure kasuan Eurohiriaren tratamendua, oraingoz, ez da birtualitate horretatik pasa eta hala ere hiri honen urbanizazio-prozesuaren azken urratsa da.

Prozesu hau garaiz-garaiko biztanleen identitatearen finkapenarekin bat etorri da, Eurohiriaren proiektua saiatzeko da eskuragarri eta onetsita izaten mezu konprenigarri eta ezagunaren bidez eta aro historiko bakoitzean kolektibo horrek izan duen protagonismo mailaren arabera osatu da, eta protagonismo hori existitu izan ez denean asmatu egin da. Bere dimentsio fisikoan eta sinbolikoan hiria bera planteatu da nortasun horren parametrotzat eta ikuspuntu honetatik pentsa daiteke oraingoa ere halako jarrerari jarraituko diotela.

Jarrera honek zenbait ezaugarri berezi eskatzen ditu:

Alde batetik irudikapena, identitate kolektiboaren zuripena bezala, historiografian landutako oroimena eta elitearen baliabide gisa aurkezten dut. Beste maila batean kokatzen dut hiri posmodernoaren ezaugarri sozialak edo gizarte antolamenduen ezaugarriak, hiri birtuala non irudikapenak zentzu ontologikoa hartzen duen. Edozein kasutan hiria eraikuntzaren prozesutzat jotzen dut, historian konformatuta baina ez halaberharrez, hiriak baditu bere sorkuntzarako zioa eta bere irudikapenerako esparrua.

Hiria, aspalditik finkatuta eta garatuta edo egite modernokoa izanik partzela identitarioaren esparrua da, baina hemen kontrajartzen dira bi kontzeptu, alde batetik historian oinarrituta gaurkotasun soziala lortu nahi duena (oroimen kolektiboa) hala kolektiboak, horrela bere burua elikatu nahi izan duelako nola bertako eliteak horrela izan dadin lagundu due-

lako, bi une horietan etengabe zehazten diren mugak azalarazten dira botere jardueren bidez (irudikapen prozesuak hemen kokatuko nituzke).

Bestetik identitatea, eraikuntza prozesu iraunkortzat hartzean datza baina prozesu den heinean mugikorra, aldakorra eta ezinbestekoa kultur paradigma honetan, baliabide errepikari bada ere. Kasu honetan historia aintzat hartzen bada ere leuntasuna eta homogeneitatearen zentzua hausteko da, identitatea, prozesu bat den neurrian, mailegu eta ekarpen ezberdinen emaria da eta hiriaren eraikuntzarenarekin topo egiten du, beste gauza bat da gero nola erabiltzen den. Horregatik *Hondarribia* esentziala eta *hiria* zenbait interes partikularren ondorioak diren aldetik ez dira nahastu behar.

Bietan konstatatzen dut badela sinbologiaren erabilpena, edo bestela esanda, identitate hori zilegitzeko, hein handi batean, hiria irudikatzen duten sinbolo ezberdinak erabiltzen direla, hauek erritmoak, elkarrekintzak, arkitektura, espazio fisikoen banaketa, historia, jaiak, lan-kultura, ikonoak, mitoak e.a izanik. Hiru aro ezberdin agertzen dira egungo Hondarribiko hiria adierazteko, bakoitzean mito fundatzaile eta garaiz-garaian sortutako identitate-zantzu ezberdinak azalduz eta gehituz gaurkoa osatzen dute.

Proposatutako hiriaren diseinuaren jabetasunari eusteko, eliteak biztanleriari eskaintzen dion hiri "modernoaren" irudia, kulturari, esparru historikoari edo bestelako identifikazio ontologikoko erei lotuta dagoen diskurtsoan datza; hiria non biztanlea talde-errealitateari erantsita dagoen, –hura birtualitate hutsa bada ere– Hala ere egoera hau, posmodernismoan ezaugarri propio bezala agertzen den hori, ez da Hondarribiko eremuan erabat ezezaguna, desitxuratuta eta kasu jakin honetan erabilgarria izateko manipulaturata bada ere. Esan behar da arrantzale kolektibo horretan ez zela modernismo garaian subjektibitate politikoaren adierazpenik eman, lan-kultura dela edo lan-banaketa dela kolektiboak bestelako dinamika soziala garatu zuen eta orain posmodernismo garaian, non banakoa "galdu" egin den, eroso sumatzen dute beren burua.

Hiritar globalaren irudiak, banako eta kolektibo orenen jomuga naturala eta ebolutiboa balitz bezala hiri metropolitanoaren eredu ezartzeko, folklorea eta landutako irudikario a-urbanoan hartzen du behar duen *indarra*, espero den espezifikotasuna ematen dioten bitartean.

Hiriaren irudikapenean eliteak markatutako espezifikotasuna kultura-ezberdintasunaren arabera sustatuta izan da eta ez ekintza politikoaren arabera, honek suposatuko baitzukeen erabakiak hartzeko eragilearen existentzia onartu behar izatea.

Planteamendu hau hiru esparrutan eman zen (ematen da): Banako-esparruan, Kolektibitate-esparruan eta Eurohiriaren esparruan, gehiegi luzatu gabe esan behar dut hiruotan arrantzaleak, orain arte behintzat, jardun duela irudikapen espazio bakar batean, hiria euren zen baldin eta "beneta-

20. Bitxia da jarduera honi buruzko oroimena, ia hiru mendez jardun bazuten ere, zein nolako finkapen arinekoa den.

ko hiriaz” mintzatzen bagara, egia da beste errealtaterik izan badirela baina zentzu urbano horretan arrantzalea ez da sartzen, ez kolektibo gisa behintzat. Orduan, zergatik defendatzen da hemen Eurohiria bezalako proiektua onartu dela?

Batez ere Eurohiriaren esparruan hiriaren irudikapenekin jarraitzen delako, hiri modernotzat agertzen da, garaikidea, eta gainera, eta hori da garrantzitsuena, berau onartzeak ez omen du suposatzen inolako utzikeria talde-identitatearen aldetik, alderantziz baino.

Hondarribiko kolektibo arrantzaleak historikoki zuritzen du bere *oraina* eta era berean kondizionatzen du bere *etorkizuna*. *Iragana* berreskuratzen du *orainaren* unea balitz bezala, etengabeko *oraina* (zertan oinarrituta?) aurkezten da *iragan* egokitu eta interpretatu baten arabera. Prozesu honetan historiaren dimentsio denborala desagertzen da eta egungo gertakarien eskarmentuak atzokoetan aurkitzen dira²¹.

Eta gaurko populazioaren trinkotasuna existitzen ez bada ere nabari da kolektibo horretan, bizi-rik dagoen egoera horri eusteko joera, beharbada horretarako giza-kolektibo eta inguruaren arteko lotura edo harremana historian zehar emandako kultura-itxurak iraun duelako. Dударik ez, harreman mota horretan zerikusituzena dauka kolektibo horren *egoitza* iraunkorrak eta honetan kolektibo horren botere hierarkiak, alegia lan-jarduera eta lurraldetasunaren inguruan osatutako gizarte antolakuntzaren adierazpenak –elkarrekintzak–, non etorkizunerako planteamendua sartu behar dugun.

Etorkizun horretan kokatuta dago Merkatu Bakarraren ondorioa den Eurohiria eta honek ezin du adierazi bere presentzia merkatu dinamikari soilik begira, bere presentzia zuritu behar du errealtatearen irudikapenaren bidez, historia horren beste alde “naturala” balitz bezala, zeinetaz bertako eliteak arduratzen den.

Modernismoan hiriko izena lotuta gelditu zen hiriak ordezkari zezan nahi zuten horri, eta posmodernitatean, globalismoaren esparruan, markatzen da egoera hori bi eremu ezberdinetan, Hondarribian alde batetik, historiaren inguruan eraikitako erreferente identitarioa garatzen eta sustatzen da hiri-eredu tradizionalan eta “a-urbanoan”. Hemen lan-kulturak eta erritualizazioak kohesionatzen dute elkarrekintza, baina giza elkarrekintza hau ez da ulertzerik lekuko historia aintzat hartzen ez duen giro urbanotik, gatazka hastapena eratzen duena, nolabait.

Bestetik hiria disolbatuta gelditzen da beste errealtate handiago batean, batzuetan birtuala eta

bestetan aterpe a-denboralaren izaerakoa izanik, bertan kolektibitateak ez du aurkitzen lurraldetasunarekiko ezinbesteko erreferenterik, hiria bera dator izatera espazio birtuala, jada ez da aurkitzerik komunitateak markatutako ildo kulturalik eta kontsumismorako joerak ordezkatzeko portaera kolektibo-normatiboa.

Edozein kasutan ikusten da jauzi kualitatiboa badela, irudikapen ezberdinen eszenategitza hartuta izateko hiria bera errealtate baten irudikapen birtualaren ondorio edota ikuskizun gunetzat hartuta izateraino. Giro urbano eta “a-urbanoaren” artean dagoen alderik zabalena hori da hain zuzen, eredu europarraren hiria ez dela pentsatzen eta osatzen ikuspuntu historikotik. Aro posmodernoa ez da posible *oraina* gertakari historikoen bitartez adierazi, historia disolbatuta dagoelako *oraine*an, horregatik EBri geratzen zaizkion bideak bi dira, inposaketa hutsa eta bortitza izatea edo eraikuntza adostua (eta irudikatua), edozein kasutan ez dugu ahaztu behar *Europa Batasuna* proiektua elite ekonomikoarena dela eta hor kokatu behar dugula Eurohiria delakoa, birtuala badela ere dagoeneko existitzen dena.

Testuinguru horretan eta alde pragmatikoago batetik nekez ulertzen da edonolako egitasmo soziopolitiko eta ekonomikorik aurrera atera nahi izatea baldin eta aurretik *gobernantzen*²² eredu finkatzen ez bada, hala ere *Txingudin* eta Eurohiriaren esparru geografikoan ekin diete egiturazko lan handiei eta zabalei *gobernantza* aldetik, oraindik ere, gutxiengo baldintzak finkatu gabe dauden bitartean.

Gobernantzak bere zentzu teorikoan esan nahi du instituzio eta partikularren artean, aktore publiko eta pribatuaren artean, gizarte zibila²³ eta politiko-

22. Gobernantza kontzeptuaren azpian, Europa mailan indarrean dauden botere jardueretan eragiten duten portaerak, arauak eta garabideak metatzen dira, bereziki zabaltzeari, lankidetzari, erantzukizunari eta koherentziari dagozkienak

in: Gobernantzari buruzko Europako Komisioaren Liburu Txuria COM(2001) 428 final Bruselas 25.7 2001.

Gobernantza kontzeptu honetan kontuagoan hartzen da banakoaren presentzia kolektibitatearena baino eta aldi berean EBaren prozeduraren aldaketaren beharra, honetan agertzen baita begi bistako defizita demokratikoa baina ez da soilik Europa mailan halako ezaugarriak ematen direnik, transmisio uhala balitz bezala agertzen dira lurralde ezberdinetako eskualde eta udalde mailetan ere.

Gobernantza, bere etimologia filosofikoan eraikuntza ideologikorako kontzeptua da, ez du esan nahi gobernatzeko maila ezberdintasunik denik baizik eta eredu motaren ezberdintasuna. Hala ere hastapen demokratikoaren geruzaren azpian alde pribatuak eta interes-taldeek jarduteko eta eragiteko diseinatuta dago; hitz bitan, gobernatzeko ahalatasunak Merkatuari ematen dioten baliabide adostua, eta honetan erregulazio sozioekonomikoen bidez botere publikoa ordezkatzeko dute.

Halako egoerak sortarazten ditu mota ezberdinetako lan banaketa eta elkarrekintzen eredu, sortarazten du banako berri bat, eta definizioz kolokan jartzen du edonolako komunitate klase.

23. GIZARTE ZIBILA: Hegelengan agertzen da interes partikularren adierazpenaren esparru gisa, bestea da norbanakoaren jomugarentzat artekari bat, Estatua, unibertsalaren ordezkaria den bitartean. Gizarte zibilean bakoitza da bere buruaren jomuga: Fundamentos de la Filosofía del Derecho, (Grundlinien der ...

21. AMENDOLA Giandomenicok dioen bezala (2000:78)

...la cita posmoderna es, pues, diferente de la clásica, en tanto que no se limita a utilizar el pasado como fuente de legitimación y repertorio de sentido, sino que sirve para eliminar el salto entre presente y pasado.

aren artean elkar lotura handiago izan behar dela gobernatzerakoan, erabakiak hartzean alegia, baina errealitatean horko aldetik ez omen da ikusten inorako gogorik eta aspaldiko ohikerian jarraitzea asmoa dela ematen du. Ez du ematen inori axola zaionik ingurumenaren halako aldaketak izango duen eragina, ezta gutxiago ere aldaketa horien ondorio sozialak. Eta sozialak izanik dituzten jomugak ez da esaterik ekonomia sozialaren adibideak izango direnik, Eurohiriaren inguruan planteatzen diren aldaketa eta eraikuntza guztiaz ari naiz.

BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA ETA AIPATUTA

AMENDOLA, Giandomenico: *La ciudad posmoderna, magia y miedo de la metropolis contemporanea*. Celeste 2000, 379 or.

ARIZAGA BOLOMBURU, Beatriz: "La actividad comercial del País Vasco en la Edad Media", en: *Euskal Herriaren Historiari buruzko II. Mundu Biltzarra*, Txostenak I Atala, 1987.

ARIZAGA BOLOMBURU, Beatriz: "La Pesca en el País Vasco/Euskal Herriko Arrantza", en: *Itsas Memoria* 3, 2000. Untzi Museoa - Gipuzkoako Foru Aldundia.

AZPIAZU, Jose A.: *Historia de corsarios vascos, entre el comercio y la piratería*, Ttartalo 2004, 191 or.

CAGNAT, Cédric: *La construction collective de la réalité* Paris, L'Harmattan 2004, 181 or.

COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS *Europa 2000 organizar el territorio europeo* Luxemburgo 1992.

ERKOREKA GERVASIO, Josu Iñaki: "Las compañías de pesca del litoral vasco durante el Antiguo Régimen". en: *Itsas Memoria. Revista de estudios marítimos del País Vasco* 3. zkia 179-222 or. Untzi Museoa-Museo Naval Donostia 2000. 774 or.

FERNANDEZ DE CASADEVANTE, Carlos: "El Tratado de Bayona de 10 de marzo de 1995 sobre Cooperación transfronteriza entre entidades territoriales: Un marco jurídico completo." en: *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria/Boletín de Estudios del Bidasoa/Révue d'études de la Bidassoa*, nº 19; 85-106 or. Junio 1999 Irun.

GARCIA VARGAS, Alejandra: CONICET-ICSH/UnJU-fhYcs: *Visibles e invisibles* en: <http://www.fortunecity.com/victorian/bacon/1244/viseinvis.html>.

GONZALEZ ALCANTUD, Jose A: *La ciudad vortice, Lo local, lugar fuerte de la memoria en tiempo de errancia*, Cuadernos A 15, 1ª Edic. Barcelona, Edit Rubi, 2005; 189 or.

GUTIERREZ, Alicia B: *Las prácticas sociales, Una introducción a Pierre Bourdieu*. Tierradenadie Ediciones Madrid 2002, 128 or.

JAMESON, Frederic: *Teoría de la Postmodernidad* Duke University Press 1991, 1ª Edic castellano, Madrid, Edit Trotta SA, 1996, 340 or.

GATTI, Gabriel; DRESSLER, Wanda; PEREZ AGOTE, Alfonso: *Les nouveaux repères de l'identité collective en Europe*. Paris, L'Harmattan 1999, 284 or.

HEGEL Georg Wilhelm.F: *Filosofía del derecho*, Universidad Nacional Autónoma de México 1975, 347 or.

LEACH, Edmund: *Cultura y comunicación, la lógica de la conexión de los símbolos*. Siglo XXI, Madrid 1989, 143 or.

LEFEBVRE, Henri: *La revolución urbana*. Alianza Editorial 1980, Editions Gallimard 1980, 198 or.

LETAMENDIA, Francisco; DE CASTRO, José Luis; BORJA, Antón (Edit): *Cooperación transfronteriza Euskadi-Aquitania* UPV-EHU 1994, 262 or.

TENA GARCIA, María Soledad: *La sociedad urbana en la Guipuzcoa costera medieval. San Sebastian, Rentería y Fuenterrabía 1200-1500*. Kutxa Fundazioa 1997, 644 or.

...

Philosophie des Rechts (1987:182) siglo Veinte 318 p. En: *attac france* 2001/05/21eko artikuluan aipatuta.

Zenbait lekutan gizarte zibilari egozten zaio gobernanza heren bat, alegia Merkatua-Estatua-Gizarte Zibila izango litzateke gobernantzaren hirukoitza ideala.

La gran paradoja de la gobernanza es que se nos propone ampliar la democracia hacia la sociedad civil que es precisamente aquel conjunto de relaciones en que no soy ciudadano, sino mero agente de un interés particular. Solo soy ciudadano como integrante de un pueblo soberano, las prerrogativas que colocan la ley expresión de la voluntad del soberano por encima del interés privado son la única garantía de los ciudadanos que integran la persona colectiva del soberano contra la desigualdad y contra la dominación de los más débiles por los más fuertes. Así la aparente devolución de poderes que realiza la gobernanza neoliberal a favor de la sociedad civil equivale a expropiar al pueblo de su soberanía.

Ib idem: en: www.france.attac.org/a3284.